

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

366/2016 Foru Agindua, abuztuaren 17koa, onartzen duena M^a Carmen Ruiz de Arechavaleta Beltrán de Herediaren behin-behineko izendapena, Donemiliagako Udaleko idazkari lanpostua betetzeko 2016ko abuztuaren 30ean, Eusko Legebiltzarrerako 2016ko Hauteskundeetako hauteskunde mahaiak zozkatzeko egin beharreko aparteko bilkura dela eta

Donemiliagako Udalak jakinarazi dio atal honi oporrak direla eta idazkari-kontuhartzailerik gabe dagoela, eta, beraz, norbait izendatu beharra dagoela, lanpostu hori 2016ko abuztuaren 30ean betetzeko, aparteko bilkura izango baita Eusko Legebiltzarrerako 2016ko Hauteskundeetako hauteskunde mahaiak zozkatzeko.

Horregatik, proposatu du udal horretan administrari laguntzaile diharduen M^a Carmen Ruiz de Arechavaleta Beltrán de Heredia behin-behineko izendatzea egun horretarako.

Bat etorri 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionaleko toki administrazioetako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartuz Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoa — 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, zeinak aldatu egiten baitu 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 92.bis artikulua berria sartuz; artikulua berri horretan, toki korporazioetan langileak halaber aldi baterako izendatu behar direnerako eskumen esparrua zehazten da.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 40. artikuluan jasotako eskumenak betez, haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Izendatzea M^a Carmen Ruiz de Arechavaleta Beltrán de Heredia behin-behinean, Donemiliagako Udaleko idazkari-kontuhartzailerik lanpostuko eginkizunak betetzeko 2016ko abuztuaren 30ean, Eusko Legebiltzarrerako 2016ko Hauteskundeetako hauteskunde mahaiak zozkatzeko egin beharreko aparteko bilkura dela eta.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazitako egunerako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Donemiliagako Udalarari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 17a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ